



2025eko SANTA ANA FESTETAKO KARTEL LEHIAKETA: OINARRIAK

1.- Lehiaketa honen helburua da 2025eko Santa Ana festak iragarriko dituen kartela aukeratzea.

2.- Lehiaketara aurkeztzen diren lanetan jorratutako gaiek lotura zuzena izango dute Olatzagutiko festekin.

3.- Kartela A-3 formatuan aurkeztuko da, eta bertan testu hau agertu beharko da:
Santa Ana 2025. Olazti.
Uztailaren 24tik 27ra
Del 24 al 27 de julio

Irabazleek multimedia-teknikak erabiltzen badituzte, Udalak lanaren bertsio digitala eskatu ahal izango du, formatu handiko inprimatze-kalitatearekin.

4.- Hiru maila ezarri dira:

- 11 urte bitartekoak (2014an eta ondorengo urteetan jaioetako pertsonak)
- 12 eta 14 urte bitartekoak (2013-2011 urte bitartean jaioetako haurrak, biak barne)
- 15 urtetik aurrerakoak (2010. urtean eta aurreko urteetan jaioetakoak).

5.- Materiala eta teknika libreak izango dira. Lana originala eta argitaratu gabea izango da, eta egile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du. Aurkeztutako kartelak egiaztatu egingo dira, adimen artifizialak sortu ez dituela egiaztatzeko.

6.- Lanak udaletxean aurkeztu beharko dira bulego orduetan (9:00etatik 14:00etara). Lanak aurkezteko epea ekainaren 13an amaituko da, 14:00etan. Erregistro elektronikoa bidez ere aurkeztu ahal izango dira.

7.- Lanak sinatu gabe aurkeztu beharko dira, eta atzeko aldean lelo bat agertu beharko da. Honekin batera, kartazal itxi batean egilearen datu pertsonalak (izen-abizenak, jaioteguna, helbidea eta telefonoa) emango dira, eta kartazalaren gainean kartelaren "leloa" eta egilearen jaioetako urtea jarri beharko dira.

8.- Lehiaketara aurkeztutako lanak galdu edo hondatzen badira, ez da antolatzaileen ardura izango.

9.- Behin lehiaketa amaitu ondoren, partehartzaileek hilabeteko epea izango dute saritutako izan ez diren lanak jasotzeko. Behin epe hori amaituta, egileek lanak erretiratzen ez badituzte, lanak jasotzeari uko egin diotela ulertuko da; hortaz, antolatzaileek askatasun osoz erabili ahal izango dituzte lan horiek. Gainera, egileek ez dute erreklamaziorik egiteko edo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

10.-Olatzagutiko Udalak eskubidea du aukeratutako karteletan udal armarrria jartzeko eta egokia iruditzen zaion edozein ikur, berak nahi duen lekuan.

11.- Kategoría bakoitzean kartel irabazlea aukeratzeko bozketa egingo da ekainaren 27an 18:00etatik 20:30era, Kultur Etxean. Bozketa horretan parte hartu ahal izango du Olaztin errolatuta dagoen 16 urtetik gorako edonork edo 2024. urtean betetzen dituenak NANA aurkeztuz. Pertsona bakoitzak kategoría bakoitzeko boto bakarra eman ahal izango du.

12.- Mailako sari bana emango da, eta sariak hutsik gera litezke, aukeraturik suertatzen ez bada.

- 11 urte bitartekoak: 75 €
- 12 eta 14 urte bitartekoak: 150 €
- 15 urtetik gorakoak: 200 €

Saria jasotzeko, irabazleek Olaztiko Udalarekin dituzten betebeharrak fiskalak eguneratuta izan beharko dituzte.

13.- Olatzagutiko Udalak kartel sarituen nahi adina erreprodukzio litografiko edo bestelakoak egin ahal izango ditu, nonahi erabiltzeko, eta egileek ez dute inolako erreklamaziorik egiterik izango.

14.- Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek onartzea eta erabakiekin ados egotea dakar berarekin.

15.- Datu pertsonalak babesteko araudiaren arabera, honen bidez baimena ematen da emandako datu pertsonalak OLAZTIKO UDALAREN ardurapekoak izan daitezen eta helbidea honako hau izan dadin: plaza GARCIA XIMENEZ 1, 31809 OLAZTI (NAVARRA)

Tratamendu honen helburua udalerriko kultur jarduerak kudeatzea da. Datu horiek ez zaizkie hirugarren pertsonari transmitituko, eta gorde egingo dira, baldin eta datu horiek eskuratu ziren helbururako ezinbestekoak edo legítimoak badira.

Nolanahi ere, adierazi ahal izango du emandako adostasuna ezeztatu dela, bai eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeke eskubideak egikaritu, tratamendua mugatu edo aurka egin, eta datuen eramangarritasunerako eskubidea ere. Eskatera horiek GARCIA XIMENEZ plazan egin beharko dira 1, 31809 OLAZTI (NAFARROA).

Erreklamazio bat ere aurkez dezakezu, hala uste baduzu, Datuak Babesteko Espainiako Agentzian, edo datuak babesteko ordezkariarekin harremanetan jar zaitezke olazti@olazti.com helbidean.